


Ez nazazu jarraiki



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTEVÉZ

Altxa sudurra hortik”, dio bizilagunak mugikorrari begira nagoeanean. Arrazoiekin. Halarik ere, segitzen dut berdin, sare batetik besterainoko joan-jinean. “Noiz gertatu zen Facebooken iragan zenuen azken momentu ona? Denbora lerroa arakatuz pozik sentitu zaren azken unea? Instagrama irekitzean plazer hartu duzun azken aldia? Twitterrek plazera ematen dizu lehen bezainbat?”.

Aitortu beharko dugu ez dela lehenagokoa. Gu, plurala, erabiliko dut, enfasiarengatik baino, segur bainaiz ez naizela bakarria haxe sentitzen duena. Sareen zale anitz gaude eta gutxiri entzuten diot aipatzen sare sozialek azken boladan sortzen diguten asperdura eta kezka gure buruez: kideok, dopamina tasak behera ditugu.

Sareak, ezagutzen ditugun formatuan, bukaerarantz omen doaz. Duela zenbait hilabete iragarri zen sozial-mediaren amaieraren hasiera; hainbat haustura puntura helduak dira, dirua irabazirik ere ez omen dira hain erakargarri, sareak publizitate agentzien eremu bihurtu dira. Omen, etorkizunean komunikazioa sare pribatueta lerratuko da, hots, bizi pribatuaren plataformetara. Ageriko.

Maite ditut, aspalditik eta pasioz, sare sozialak, bultzatzen dituzten baloreengatik, sozialarengatik, argira ematen dituzten mugimenduengatik. Beharrezkoa da begi batez berriak segitzea, besteek diotena, interesatzen dituenak: gure jakitateen elikatzeko erraztatzailea da. Ontsa irri egin izan dugu, anitz ikasi dugu, gustukoei edo interesekoei buruz, informazio iturri agortezinak deskubritu ditugu, trukatu dugu, mila-ka gai eri puntutaraino heldu zaizkigu, baina orain? Behin *like*, biharamunean bota, ardura paira.

Izan ere, orenak iragan daitezke lefroetan gainbeheraka, publizitate artetik, errezeta arraroen aitzinean, txiste txarrak irakurtzen. Harrabots anitz. *Troll* gehiegi. Auzi lasterregiak. Bide batez, eta paradoxikoki, arrandia kutsu horrek ez ote gaitu sentiarazten noizbehinka bikainak bai, baina maiz garena baino itsusiago, pobreago eta bakarrago ere? Hain zuzen goaitatzen dugunaren kontrakoa. Zer egin? Kide batzuk “isildu”? Batzuegandik bereizi? Ez da hain sinplea.

Ez dut erranen hobeki zela lehenago, alta, batzuetan nago ea zerk akuilatzen nauen Facebook ala Twitter irekitzera mekanikoki. Azken hilabeteetan erre-

flexu bihurtu da, zinezko behar edo plazera baino. Aitortzen dut zerbait huts egitearen beldurrez naizela nolabait.

Zorionez ez da beti hala. Zenbaitetan hurbilekoen edo ezagunen bizi zati bat kausitzen baitugu, gogoeta bat, anekdota bat. Alde humanoak eskertzen da beti, ekoizpen, iritzi eta bizipen pertsonalak (katu argazkiak ez). Haatik denbora lerro gero eta erdipurdikoaren argira ez dakit jakintsuago izateko bide hobeagorik ez nukeenez atzeman behar. Praktikek bultzatzen ez bagaituzte, denbora pasa hutsa bihurtzen baitira.

Ontsa oroitzen banaiz, gehien maite genuena zen blogetan ibiltzea, jendeekin jardutea, iritziak partekatzea, saltsan ibiltzea. Horrela ditut ezagutza berriak egin eta anitz ikasi, nahiz eta ez dena beti arrosa kolorekoa izan, komunitatea ginen, inportantzia gehiago ematen genion edukiari, eduki-ontziari baino.

Blogetara, edo lehengo hartara, itzultzeko gogo eman dit, jarioen jarraipenera, han jardun ahal izateko, luze eta zabala. Eta horrela, gero, denei zabaltzeko ahalko nizekizueke *post*-ak, sare sozialen bidez, bistan dena (kontraesanen bat gorabehera). ●